

LEKUALDATZE LEHIAKETA 2017-2018

- Atzo argitaratu zen deialdia hezkuntza.net atarian.
- Eskaerak eta merezimenduak aurkezteko epea: 2017ko azaroaren 21etik abenduaren 13ra, biak barne.
- Aurtengoa erkidego mailako deialdia da.

Gai honi buruzko bilera informatiboak egingo ditugu erkidegoko hiru hiriburuetan.

- **Bizkaia:** azaroak 28, Bilboko egoitzan 17:30etan (Jose Maria Eskuza 1, 1 esk)
- **Gipuzkoan,** Donostian, EHUko Barriola Eraikineko 2.1 gelan azaroak 22, 17:30etan.
- **Araba:** azaroak 29, Gasteizko egoitzan 18:00etan (Eulogio Serdan 5)

GREBA ESKUBIDEA ETA BETEBEHARREI BURUZ HAUXE ADIERAZI NAHI DUGU:

EPE praktikaldia eta greba eskubideari buruz entzun eta irakurri ditugun zurrumurruen aurrean zera adierazi nahi dugu **STEILAS**etik:

-Urte guztiko praktikaldi "arrunta" burutu behar dutenei ez die ezertan eragiten.

-Salbuespen gisa, haurdun egonik gutxieneko 3 hilabete eta egun bat bete beharrekoen kasuan, erabakia batzorde barematzailearen esku gelditzen da, langileak praktikaldi egun minimoak bete dituen ala ez. (egun minimo hauek greba eta bestelako baimen egunei aplikatzen zaie)